

SEGMENTAZIOA

Zerbitzu edo produktu bat saltzeko oso garrantzitsua da gure bezero motak finkatzea, hauek baitira gure produktua aurrera ateratzen dutenak, horregatik aztertuko ditugu. Lehenik, gure bezeroen ezaugarri nagusiak edo bezero motak azalduko dizkizuegu, zein bezerori salduko diogun gure produktua.

Gure produktua mendizaleek momentuan egindako janaria eduki dezaten sortu dugu, bereziki Euskal Herriko mendizaleetan zentratuko gara, haiek mendira joatea eta ibilaldiak egitea gustuko baitute. Euskal Herri mailan zabaltzea izango da hurrengo pausua, eta arrakasta oso handia izaten bada Europa mailan ere zabaldu genezake.

Mendira joatea gustuko duen kolektibo hori hainbat ezaugarri komun izango dituzte, gure lana baloratu eta erabilpenari probetxua aterako diotenak. 16 - 30 urte bitarteko bezeroetan zentratu gara, hau da denak gazteak izango dira. Beste aldetik, Ultra-trail bat egin behar dutenak eta ume txikiak ez dute produktu hau behar, beraz 16 - 30 bitarteko mendizale gazteak beraien lagunekin edo familikoekin joaten direnak erabili edo beharko lukete.

16 - 30 URTE BITARTEKO BEZEROAK: Produktu hau ez da bakarrik urte horietako bezeroentzat, nahi duenak erosi dezake, baina hala bereiztu ditugu uste dugulako haiek izango direlako mendira edo ibiltzera joaten direnak batez ere. Edozein herrialdetako pertsonak erosi dezake gure produktua, baina Euskal Herrian zentratu edo arreta jarri dugu gehien bat, uste dugulako haiek gehiago erabiliko dutela, gehiago joaten baitira mendira edo ibiltzera.

Guk merkatu-mixto batean egingo dugu lan, bezero zehatzak eta bereiztuak dituen segmentu batean sartzen gara eta. 16 - 30 adina duten bezeroak izango ditugu batez ere, uste dugulako adin hoi bitarteko jendea gehien bat joaten dela mendira edo ibilaldiak egitera.

Azkenik, eta laburbilduz, eskainiko dugun produktua zartagin portatil bat izanda ere, ez da derrigorrezkoa 16 - 30 urte bitartekoek erabiltzea, hau helduek ere erabili dezakete, uste dugulako tresna hau edozeinek erabiltzeko gaitasuna izango duelako. Erabiltzeko oso erreza da eta edozeinek ulertu dezake.